BigarenAl bada aditz-yokatzea euskalki guztietan bardindu edo beintzat alkar ureratu bear da.Bakoitzak bere euskerea maite dabela,onelan min gitxiago emongo dautso beren usteak ororen osasunerako.

Irugaren.Bardindu ezin danean,gipuzkoerea autetsi daiteke;euskera ilten bada(Jaunak ez dexala gura izan)beranduago ilgo da,ta ganera erezako, politago dala esan lexake.

Laugaren.Auzi onetan,bear dan erabagia artuta,Euskaltzaindiak Euskal-izti bi idatziko ditu:bata txikia umentzat,bestea aundia nagosientzat,guztiok zer egin yakin daigun.

Madariaga'tar Angeru Abak.O.fr.m.

I-Erizkizuna.

¿ Idatzi-euskerea bat egitea bearekoa edo egokia ete-da ?

Idatzi-euskerea bat egitea ez bakarik egokia baita bearekoa bere bada. Euskereak izan bear dau euskoen oyezko mintzoa,yakitunen artean beintzatN guztia,edo beinik-bein geyena,euskeraz irakuri ta idatzi bear dabe;gañera

euskerea izan bear da euren arteko artu-emonetan erabiliko daben oyezko izkuntza. Baña euskerea bakartu ezik, bere euskalkietan bananduta egon ezkero ezin leike geyenak ikasi, ta ikasi ta yakin ezik, ezin erabili.

Baña euskerearen bakartzea idatzi ta yakitunen artean barik, eríraño eldu bear da:

I°-Euskereak izan bear dau euskaldun guztien oyezko izkera bakará, baña euskalkietan bananduta egon ezkero ezin daiteke olangorik yazo.

2° Euskerearen bat-egitea idatzi ta yakitunen artera baño eltzen ezpada, idatzi ta yakitunen eta eríko lagunabaren artean banatasun kaltegarí bat yaríko litzake euskal-erían euskerearen eriotza aureratuko leukena.

II-Iriskizuna.

¿ Nola egin bear da euskerearen bat-egitea ?

Esta batu bear euskerea euskalki bat euskera batu ta bakartzat agerturik, euskalki guztiakaz bat egiñik baño:

I°-Euskalki guztien edertasun eta osotasunak yakituko litzakezalako;

2°-Euskalki banak ezetarako ikasi bearik izango elitzakelako ta euskera batua ikastea guztientzat asko ersztuko litzakelako.

Azkenez euskalki bakar bat artzen bada euskera batutzat, biskayerea artu bear da:

I°-Alkar-eraskietan askozaz bamanagoa dalako gipuzkerea baño;

2°-Oguzteko geyen-geyenetan bigunago ta euskerazkoagoa dalako;

3°-Aditz-yokera lanan guztiz erez ta aran gitxikoa dalako, gipuzkerea bariz txerenak saspi urtean ikasten ibilita ikasi ezinda itxi eban euskerea diruli.

Larakoetxea ta Agirezabalar Bendi Eurenaren Ipolita.K.O.

¿ I cual ha de ser, en consecuencia la labor de la Academia de la Lengua Vasca ?

I°-La de fomentar la publicación y difusión de los escritos euskéricos populares en los cuatro dialectos principales.

2°-La de fomentar la publicación de los trabajos científico-literarios

en cualquiera de los dialectos antes dichos.

3°-La de depurar el léxico euskérico,desenterrar y dar cida a voces,frases y giros arcáicos olvidados o en desuso,que,no obstante procedan de la entraña de la lengua,cualquiera que sea el dialecto a que pertenezcan.

4°-Pasar revista a todos los neologismos de todos los dialectos y sancionarlos o rechazarlos con su autoridad.

5°-Crear con el concurso de cuantos quieran colaborar,las nuevas palabras necesarias para las nuevas ideas y nuevas necesidades de la vida moderna.

Nicolás Cortés.

I^{a}-Que se haga la unificación,pero más la unificación formal o de inteligencia por dominio de los dialectos,que la unificación material de voces t flexiones.No queremos supresiones ni destierros por decreto,sino que se hagan por introducción de las diferencias dialectales en las inteligencias donde se unificarán.Las supresiones únicamente las admitimos en cosas muy secundarias y accidentales y a lo sumo las admitiríamos en las leyes fonéticas,principalmente en las llamadas por Sabino de Arana arbitrarias.

2^{a}-Que se estudie el medio más adecuado de implantar en las escuelas un método que haga que los niños y más aún los adultos dominen todas o siquiera las principales diferencias dialectales.

3^{a}-Que en orden a la unificación se estudie el trabajito "El verbo euskérico en sus dialectos" que aunque inadecuado a los niños creemos que él u otro semejante se imponga a los adultos,se adapte a los párvulos y se estudie por todos.

Urutiatar Gotzon M.E.S.Urtzizti-irakaslarija.

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1921-01-27

Urengo batzarak 11 onen -7-an izango ditugu.Benengoa Elizondon Udal-
-Etxean goizeko amar ta erdiak inguruan asi-ta.Batzar au ageria izango
da ta A.Intzaren euskaltzain-saierako itzaldia entzungo degu:bigarena,
aratsaldean,Lekarotzko A.Laputxinoen Komentuan.

A.Intzak idati digunez bi orgadi edo tren baizik ezin ara eltzen;
bata gaueko zortziak inguruan Irundik aratsaldeko bost ta erdiak aldean
irtenik;bestea,goizeko amar ta erdiak inguruan Irunen zazpirak bost gitxi-
ago dirala irten-da.

Nere eritziz 26-gauerako Lekarotza jotea izango litzakigu egokiena,
urengo egunean goiz ta aratsalde batzarak osatu al izateko



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1921-03-07

1921-03-07

Euskeraren batasunaz izan (diran) batzar ageristan irakurí diran txospen-laburpenak.

Bear-bearekoa da euskal-idazkeraz guztiok bat-egitea.¿Zein bide izango da egokiena,euskal-bakuntza ori lortuteko?.

Autetsi lenbizi ditugun izkelgietatik bat,eta artentu bere analak dituzten osaguneak ezariaz.

Bere aburuz,gipuzkoar izkelgia autetsi bear da,beste izkelgiak baño obari geyago dituelako bere alde.-Ereza go,bai zabaltzeko ta bai ulertzeko.-Beste guzien erdian arkitzen da;ta erezago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzea,ertzak bat-egitea baño.-Izkaitarak ulertzen dute gipuzkoaren izkera,gipuzkoarak ez bizkaitarena;gipuzkoar ta zuberotar edo lapurditaren artean ori ber-bera jazoten da.

Idazle guzien euskera ori ez da izango gaur-egunian itz edo idazten dan gipuzkoera;baizik osotua,apaindua.Ortarako euskaltzain'ak lan egin bear dute:Artu,bai bizkaiko ta zuberoko,ta bai napar ta lapurdiko izkelgi edo izkerak dituzten edertasun ta obekuntza berezlak,eta gipuzkoar izkelgiari ezari:

Orela erabatuaz izango degu dagokigun idazkera,ta gure enda zar ta zintzoaren omengari izango dan euskera garoiya.

Garitaonandia tar Pitor (Donostiako batzarean).

Asparen go batzarean irakurritakoak.

Gipuzkoako euskera autatu bear da.Ume da gaien aditzen dana Naparoan, Bizkaian eta Laburdin..Bizkaian izkuntza ontan egindako itzaldiak aditzen dituzte,Naparoan ere bai;Lapurdin ere berdintsu izan bear du auzoan dago ta. Bera,Gipuzkoera,izkelgi guzien erdian dago ta oregatik da toki gehagotan aditzen dana.Beraz au autatu bear da.

Oyeregi' tar Jita Buenabentura (Arbelaitz)

1 -Euskeraren batasuna beara litzake euskaldun guztiak alkar ondo aditu gaitezen.Euskeraren batasuna,euskereren indara.

2-Intzoera bat,gauzak beraz dijoazela,beztien gain yari bako len,batutako erderak euskal-intzoera guztiak ito litzateke.

3ª-Batasunerako biderik egokiena bizi dan euskal-mintzoera bat artzia litzake. Bestietan dauden gai yatorenak oni emanaz. Norbait dala-ta mintzoera guztiak batera eldu dirala, askotan ikusten dana da.

4ª-Mintzoeren alkar-arteko antzez iru taldetan eratu litezke: 1 gipuzkera-goi-napara-laburditara.-2 zicero-be-napara ta 3ª bizkaiera. Menengo taldean beste guztietan baño askoz geiago mintzatzen dira. Euskeraren batasuna edo laburdieratik ala gipuzkeratik.

5 -Batutako euskera ez litzake mutil txikitxoen ikastetxietan irakatsi bear alik eta kozkortu arte. Egunarietan gero ta geiago erabili bear litzake euskera batua. Edozein yakidi ta elerti lanetan beti euskera batuan egin bear lirake. Euskera bakara, bai idaztietan ta bai mintzoan. Ta Vainkoa oroen gain.

Agustin de Anabitarte.

A las decisiones de la Academia, única autoridad en estos casos, me atendré tanto en este como en cualquier otro asunto relacionado con la lengua. Mi pobre opinión, sin embargo, está decididamente por el dialecto gipuzkoano. He leido concienzudamente el folleto que con el título "Sobre la unificación del Euzkera" publicó Euzkaltzale-Bazkuna y a decir verdad no me convencen sus razones siendo por el contrario muy fáciles de rebatir.

Luis de Jauregui.



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1921-04-28/29

Urengo batzarak Donostian, Aldundi-Yauregian, il onen (yirila) 28 ta 29-an izango ditugu. Lenengoa, aratsaldeko lauterdietan; bigarena, goizeko amaretan.

E R I Z K I Z U N A K.

I-Bai aditz iribiatu-aurean (Eguzkitza yaunaren txospenari erantzumena).

II-Euskalki bat uren-gisa artu bear dan. Artu bear bada ¿Zein? (Eriaren ustea ta Euskaltzaindiaren erabakia. Eguzkitzaren lan bat).

III-Euskaltzaindiaren erabakiak arerazteko aginpidedunai eskaria. (Batzuri egin degu; beste batzuri, ez.)

IV-Euskaltzaindia Lapurdi aldean.

V-Durangoko Euskalegunak.

VI-Idazkeraz azken erabakiak.

VII-Elazkoa (la prensa) ta Euskaltzaindia.

VIII-Ez aditz iribiatu-aurean (Eguzkitzaren txospenari erantzumena).

IX-Eliza ta euskera.

X-Euskal-aurizki ta atzizkiak (astirik baldin badau: yaraipena).

Yakin bezate euskaltzainak: I° gure arteko Olabideren aita (izenez Eulogio) il onen bederatzigarenean Gazteizen il dala. Otoitz egin bezate berarentzat. 2° Gure lankide Eleizalde Zirujano baten eskupean datzala urdaileko anditsuren bat kentzeko. Gere otoitzetan berazaz otoitu gaitean.

idatziezkero,zelan irakuŕi be ezin jakin geinke,esakunaren amaira elduarte

1921-04-15

Bai- aditz iriabitu-auŕean.

(Eguzkitza euskaltzainaren txostenari erantzumena.)

ak dira:bayetza ta ezetza
dira,besterik ez".Erantzu-
orduan"conjunción"da ta,
ata ez bestea,no lo uno,
.
oi dira ta origaitik-edo
dabe:banaz,enintzan".
uztiok dakizuenez,aditz
ivo bailitzan eta orduan
n.Egunero esan ta entzun
,maitetxo.Entzun dodaz
le hagas caso)ez yaramon-en
ko;Zuberon etxit,ez txit
i.
eti,erderazko si ta no
ditz baten artean saŕi
oikoagaitik inori kalterik
diñoe batzuk".Eztakit nire
ramatiketan ezaŕen,idaz-
eien-geienak auŕizkitzat
dan eŕiak,euskalki guz-
iket norbaitek,zelan daki-
bai iratsita ala iratsaka
nacen de choque de so-

... ostagiak sortzen direala)edozein Ponetica-liburutan irakuŕi daikegu.

5.-"Nire aburuz,dino gure lankide onak,erderazko sí ta no aditz-auŕizkiak izango diran egunean gure bai ta ez be olako zerbait izango dira;baña bien bitartean ez."Erderaz auŕizki(prefijos)ta atzizki(sufijos)eztirean itz asko

1921-04-15

Bai- aditz iriabitu-aurean.

(Eguzkitza euskaltzainaren txostenari erantzumena.)

I.-Bai ta ez."Itz biok,dino Eguzkitzak,enda batekoak dira:bayetza ta ezetza dikuŕe:gaztelerazko si ta no direana,orixe berori dira,besterik ez".Erantzumena.Gure ez-ek erderazko"ni"bere adierazoten dau;orduan"conjunción"da ta, onetariko itz guztien antzera,"atono"izan doa.Ez bata ez bestea,no lo uno, no lo otro.Ez bata ez bestea:ni lo uno,ni lo otro".

2.-"Baŕi baino saŕiago,dino gure lankidak,erabili oi dira ta origaitik-edo aditz-aurean bein baño geyagotan izki bana galtzen dabe:banaz,enintzan". Aditz iribiatu-aurean esatea zeatzago edolitzake.Gustiok dakizuenez,aditz muge(infinitivo)bat askotan erabilten dogu imperativo bailitzan eta orduan oso-osorik gelditzen da aditza,aurretik ez euki aŕen.Egunero esan ta entzun oi doguz onelango esakerak:ez garbitu ori;ez yausi,maitetxo.Entzun dodaz oŕegaitiño aldakuntzatxo batzuk:etxaramon(B-mu)(no le hagas caso)ez yaramon-en ordez;etxaune(Baztanen ta Otandianon)ez yauna esateko;Zuberon etxit,ez txit oguzi-bearean ta beste bat edo bestetxo,guztiz gutxi.

3.-Eguzkitzak."Edo bakaŕik edo aditz-aurretik doaz beti,erderazko si ta no bezelaxe".Beti ez.Ez ta imperativotzat darabilgun aditz baten artean saŕi erabili oi doguz beste itz batzuk ere.Ez jaungoikoagaitik iñori kalterik egin.Ez berandurarte egon etxera etoŕi barik.

4.-"Augaitik-edo,dino Eguzkitzak,aurizkiak direala diñoe batzuk".Eztakit nire aurretik inok aurizkitzat agertu etedauskuan;baina,gramatikatan ezaŕen,idazkietan beintzat gure egunotararte euskalari gelen-gelen-gelenak aurizkitzat erabili dabez.Eta onezaz ganera eŕiak,euskera-yaube dan eŕiak,euskalki guztietan onelantxa erabili dauz.¿Zelan dakizu,esan daiket norbaitek,zelan dakizu eŕiak ezkara etoŕi,banengoan nau diñoanean,ez ta bai iratsita ala iratsaka darabiltzan?.Los fenómenos fonéticos de permutación nacen de choque de sonidos(aotsen alkar yotetik aldakuntzazko ostagiak sortzen direala)edozein Fonetica-liburutan irakuŕi daikegu.

5.-"Nire aburuz,dino gure lankide onak,erderazko sí ta no aditz-aurizkiak izango diran egunean gure bai ta ez be olako zerbait izango dira;baña bien bitartean ez."Erderaz aurizki(prefijos)ta atzizki(sufijos)eztiran itz asko

aurizki ta atzizki doguz guk:"segun dicen"(itz bitan erdaldunak)dinoenez (itz baten guk);"para mi"(bitan)niretzat(baten);"con el hombre"(irutan)gizonagaz edo gizonarekin(batean);"cuando vengan ustedes a mi"(bost itzetan), zatorkidazenean(baten);desde el mismo momento en que nos veais vosotros(bederatzitan)gakutsuezanetikek(bakar baten).Azken itz desde ta el ta mismo ta en ta que ta nos ta vosotros gure izkuntzan aurizki artizki ta atzizki doguz. Oregaitino,onelangotzat erabilteko,erdaldunak euren itz orek alkar-iratsiarte egotekoak bagara,bene-benetan,gizonak,egoaritsu ta trentin(pachorra) andikoak gareala erakutsiko dogu.Orderea ezta euskeraren neuri gure egunetararte izan.¿Euskaltzaindiak aurerantzerako neuritzat artuko etedau?.

6.-Eguzkitzak."Geyenetan aditz-auretik dabiltzalako,euskaleriak aditzakin batu ditu ta idazlerik geyenak be aditzari iratsi dautsez".Erantzumena."Aditz-auretik dabiltzalako ala aditzarenak direalako?Aditz auretik darabilguz oinez,itxasoz,eznez...oinez goaz,itxasoz daroagu,eznez beterik(eztogu esaten goaz oinez,daroagu itxasoz,beterik eznez)eta z azkenki"modal"orek eztau aditzean inoiz aldakuntzarik egiten.Eztogu ez esan ez entzuten:oinez koaz, itxasoz taroagu,eznez peterik,ezkoaz,eztaroagu ta ezpalitz-en antzera.¿Zegaitik ezkoaz,eztaroagu ta ezpalitz bai ta oinez koaz ta lagunak ez?Arek,aditz auretik ibiliaz ganera,aditzenak eta adizki(particulas verbales de conjugación)direalako;onek,aditz auretik ibili aren,euron buruen jaube"independientes"izanagaitik.Onelantxe gipuzkoerazko zai gera ta bizkaierazko eurai daroatsez ta mairik mai narabile eztauz inok inoiz ez entzun ez idatzi izango za gera,eura daroatsez,mairik ma narabile,bagera ta badaroatsez ta banarabile entzun ta ebagi ta idatzi oi daroaguzanez.¿Zegaitik?Itz gitxitan:bai aurizki dogulako;besteok bariz auritz bai ta aurizki ez.

7.-Eguzkitzak."Idazlerik geyenak be aditzari iratsi dautsez,ori dala-ta,eriak aditzetan sartu dituan aldakuntza guztiak edo geyenak beintzat ontzat emonaz. Nire eretxi txikarez,aditzai iratsi barik,bereziki ta oso-osorik idatzi bear litzakez."Gure lankide gartsu ta sakonak,uste dodanez,zio auxe dauko bai ta ez iratsi barik aditzai ganeratu bear geukezala esateko:bereber,eskuko edo menderatzaka"independientes"direala.¿Zalda egia?Gatozan arira.Ni ta gu ta zu

bai ta ez baizen bereber"independientes"doguz eta aditz iribiatuari ezarten dautseguzanean eztoguz osorik esaten.Nago,gagoz ta zagoz esaten dogu ta ez niago,guagoz,zuagoz.Ni ta gu ta zu akatza kenduta darabilguzanean,ez ta bai zegaitik eztoguz erabili bear?.

8.-Goazan aurera.Eguzkitzak."Bai,Euskaleriak aditz-aurean bairen ordez beti beti ba esaten daula diñoe;baina ezta ta baida eriak darabiltzala ta eztabaidea ortik sortu dala iñok be ezin ukatu daike.Euskaldunak euren artean eztabaidsa darabilenetan,zegaitik esaten dabe beti bai-da ta iñoz bez ba-da?" Erantzumena.Eztabaida baino leku geiagotan esaten da eztabada erderazko "disputa"adierazoteko.Nire iztegian iru euskalki dira eztabadadunak(BN,L,S),eztabaidadunak bi(B,G).Lenengoaren eratori(derivados)bi batu nebazan:eztabaidakari"disputador"ta eztabadakatu"disputar".Eztabaidaren eratoririk eneban battxo bere batu al izan.Badira,ganera,Bizkayan bertan eztabada esaren direan lekuak:nire Amaren eria,Mundaka gitxienez.An bik izka diarduenean,batek ezta badino,besteak bada erantzuten daki,ez,Lekeition legez,baida.Ezta beraz zuzena gure lagunaren eritzia beti izkaldietan baida esaten dabela.Lekeition eztabaida esan daroagu.Bai ori indar geiago emoteko erabilten dabe izka diarduenak duenak.Baita,len noizbait emen aitaturiko,baiz bere esaten dabe eztabaidetan.Ezta batak,baida besteak;ez batak,baiz besteak;batak ezin;besteak baizin."Euren bayetzari indar geyago emotearen esaten dabela edonok daki,dino Eguzkitzak:augaitik bere bayetza sendoago egiteko aldia dala-ta, ba'ren ordez bai darabilan idazlea eriagaz dabil"Eta nik diñot"ba-ren ordez baiz darabilen idazlea eriagaz dabil.Ba,mutilak,eriak tokirik geyenetan darabilena itzita nunbaikoak artu daiguzan:Bai-baiz oretatik Babelera eztago bide andirik-eta aurera.

9.-(Irakuri emen Eguzkitzaren 2°,lenengo orialdekoa)Gure lankide langile ta argi onek idatzi dauskuzan itz orek egi utsa dira.Gartxo bi ezari dakioez oregaitiño:1ºLekeition,baida-ren uri maite dodan oretan,ezaldozuz eguneró entzuten onelako esakeratxoak:banenguan neu ta!¡Banekidxan!¡bâkigu,ori, emakumia,bâkigu!Ta zineskaitz dan zerbait dantzueneandezaldatzu euren ezpanetatik itz au belariratu:Bakixu?Ora or,gizonak,baida ta bere laguntxo oren

eŕian bertan banenguan,banekidyan,bâkigu ta bâkixu ta,saretxo bat lau esku-
ren artean dogula baginoaz,sarekadea..Bigaŕena:eŕialde askotan aditz urgaz-
leaz gitxitan erabilten dabe baiezko aurizki ori:bada etoŕi,eztabe esaten
baida etoŕi bere ez.Euron ordez Bai,gizona,etoŕi da nai etoŕi dala gizona
nai onen antzeko beste esamañaren bat aotan artu daroe.Irugaŕen oaŕa.Bada-ren
ordez baida baiño askozaz toki geiagotan esaten dau eŕiak gosia gosearen ta
eskue eskuaren ordez.;eta au gora-bera,batasunera eltzeaŕen,guztiok aintzat
artu doguz gosea ta eskua,gosia ta eskue itzita.Beste onenbeste egin daigun
baida ta bada oŕezaz bere¿Zegaitik ez?Ogeigaŕen gizaldi onetararte euskalari
guztiak egin dabena,ogeigaŕeneko onek ¿zegaitik ez?.

Io.-Eguzkitzak."Norbaitek esango dau bear bada:bedi,baña aditz-auŕetik ba
saŕiago entzungo dogu beste bai ori baño.¿Eta oŕegaz zer?Eŕiak bai-ri bere
i ori saŕi jan egiten dautsala-ta,idazleok be i ori baraustekotzat edan bear
etedogu?Ori baitaŕa baño be barausteko txaŕagoa litzake"Erantzumena.Eŕiak
bai-ri bere i ori,aditz iribiatu-aurean,uldu egiten dautsalako,idazleok bere
i ori uldu(kendu)egin bear dautsagu.¿Zegaitik?Horatius-ek bere Ars poetica-n
itz eder omentsu onek dakarz....usus,quem penes arbitrium est et norma lo-
quendi.Txosten mamintsu onetan baitaŕa aitatu dauskue barausteko.Oŕetarako
ezeban idazleak bai-ri ezer kendu beaŕik:barausteko baru-ri u uldu dautso
ta ausi-ri i:baru ausiteko-ren ordez barausteko.Egoki yan dautsoz bi izkinok.
On egiñ dagioela.Tota ta Katalin goŕi beragan eukazan oŕetarakoezer dala ta
asi daku baîtar bila?.

II.-Eguzkitzak."Eŕiak auŕez notino(nok diño-ren ordez),notaki,notakar,nota-
rabil;oŕetiño,oŕetakar,oŕetarabil,oŕetaki;aretiño,aretaki,aretakar,aretarabil
eta abar esaten ditu;baña itz bi oŕeikin bat egin eta biak alkaŕi iratsita
idatzi dituan idazleaezein da?2.Oñatiko batzaŕerako egin neban Fonetica Vas-
ca-ren 3o-gaŕen oŕialdean dauko Eguzkitzak onen erantzumena.Los autores que
mas fenómenos fonéticos de esta naturaleza(los perifrásticos)han mostrado
en sus escritos son los bizkainos;tales como los presbiteros Micoleta y Mo-
yusl(el mayor)y en especial los franciscanos Añibarro y Zabala.Dost pider
lakar Añibaŕok,bider esateko.Bapez,bat bere ez-en ordez askok erabilten dabe.

Bez,bere ez-en ordezkoa,Eguzkitzaren txosten eder onetantxe bere ikusi dot. Bizpairur ta bospasei aurez erabilten dabez Lekaitiñ Lapurdin ta Zuberon idazle ta mintzatzaileak.Bestela notaki nork daki-ren tokian eztot inon irakuri(I),eztot beintzat gomuta.

II.-Eguzkitzak."Bai-ta naz,bai-dator...eriak ezdituala erabilten eta,barikeri iguingaritzat daukaguz.Notaki,onetaki,oretaki,aretaki eriak darabiltz; baña ontzat ez doguz emoten eta eriaren okera zuzendu egiten dogu.Batean bai,bestean ez¿zegaitik ori?"Erantzumena.Batean bai ta bestean ez.Ona emen, zegaitik edo zeatzago esteko,zeintzugaitik.Bai bi,zio bi daukaz bai-k ba izateko,nok daki-k notaki izateko eztaukazanak.Lenengoa.Notaki ta lagun orek euskalki batzuetan eriaren aotik olantxe(2)entzunaren,Bizkaierazko alde batzuetan,gipuzkoerazko geienetan eta Naparoako ibar edo bestetan daki entzuten dogu,aureko itz-azkenkia k danean bere:Arasaten ta Bergaran no daki,Azpeitin zeiñek daki,Donostian zeiñek daki ta nork daki,Betelun nor daki.Bakuskunez,eriaren oker ori eriak berak zuzentzen dausku.Ostera bai+naz-en ordez banaz ta bai+dator-tzat badator edozein aldetan diraustuz eriak,izkaldietatik landa Lekeitio-aldean ta urian bertan bere bai.Bigarena.Nork daki ta onek daki-ren artean,batzeko,eztago bai-naz ta bai-datoren arteko alkartasuniko¿Zegaitik? batu daroaz eriak nork eta daki,onek eta daki?Lenengoak amaikitzat k ta bigarenak asitzat d dauzkezalako,ez nork eta onek eurenez, izatez,zentzunez daki-ren lagun direlako,osorik esatea gaitz dogulako baino. Ni baiño obeto,bi biri,ekari bat esaten dau eriak notaki zaleak nik baino bik biri,ekari bat-en ordez.K auzoko txara daue konsonanteak beragaz batean bizi al izateko.¿Zegaitik batu daroaz eriak bai ta naz,bai ta dator,banaz ta badator esateragiño? ¿Osorik esatea gaitz daualako?ez.¿Bai-ren i auzoko txara,dalako? ezta.I dauke askenkitzat sei,nai,loi ta beste itz 6 askok:

(I)Sari idatziak izan dira(zer direan oartzaka edo)Artolak dauko-ren ordezko itz onek:Artola tauko,artola tauko,artola tauko dendea,sagar ustelez,sagar sagar ustelez,sagar ustelez betea.

(2)Lan au batzarean irakuri zanean,Azpeletan eta Alduden no taki esaten dabela yakin genduan;Zuberon,P.Lhanderen ustez,nurk taki;Intzan,nor taki.Mire gomutea ilundu ezpadat,Zuberon(zer bitxiagorik! nur taki esaten dabe,baina -k beste gertari batzuetan osorik geldituta:hunpk daki;eta ez hunp taki, hunek taki bere ez.

bat ez batek eztau galtzen i ori aditz-aurean,baik berea galdu daroanez.
Eztogu ez esan ez entzuten se daukadaz ,sei daukadazan-en ordez;iru ma neukazan,iru mai neukazantzat.Gizonak:zurikoŕak bagara zuritu gaitezan.Eŕiaren onetaki ta badatoŕeŕ oŕen artean eztago bardintasunik.Erderazko los reyes s ta r oŕen alkar jotea oguzgaitza dogulako.lo reyes esan daroagu,idatzi los reyes.Bardin jazoten da onek daki,bik biri ta euron antzeko esakeretan.
Norbaitek ganeratu daike baidator eŕazago ulertzen dala badator baino.Bai.
Erderazko"venir"-i dagokion etoŕi,beti osorik erabiliezkero eŕazago ulertuko litzateke,batean etoŕi bestean etoŕ esanda baino eŕazago.Eŕiak,ostera,etoŕi da,etoŕiko da ta etorten da dirausku.¿Zegaitik ez(guk) etoŕiten da?¿Osoago ezalda?
Ulerteŕazago ezalda?Bai,oso ta ulerteŕazago litzake,baina eŕiarena ez etoŕiten da esatea.Baina,gizona,erantzun daikeste.A)Ipaŕagiŕek bere Gernikako arbolaren âpaldi(estroŕa)baten erortzen bazera dino.B)Prai Bartolomek bere iru liburu naŕuzkoen azalean ikaskizunak idatzi-beaŕean icasiquizunac(i ta guzti,oso-osorik)ezaŕi eban;z)ume izketan asibaŕi askok etoŕiten esan daroe.
Itz osoak bear doguz,ulerteŕazak.Logica eŕai-gogor aizto zoŕozduna eskuan dogula,oso bila asiezkero,batean baidator,bestean etoŕiten,orain oso batzuk gero beste batzuk aintzat artuaz,beste izkerak eun mendetan(eun gizalditan) ezin izan dabena,geuk euskaldunok,euskaltzainok urte gitxi baŕu egingo genduke:euskera osotutzako ori banatu ta lurpera-bidean ipini.
13.-Eguzkitzak."Itz au aintziña ta beñola bai esaten zala-ta orain be osorik ogutzi ezkero,bai litzakela orok autortu bear dabe.Urlia etoŕi eteda?-Bai, bai jauna;bai andrea.Urlia etoŕi eteda?-Ba-da etoŕi.Lengo bai arek eta oingo ba onek ikur bat dauke;gauza bat eta bardiña adierazten dabe.Ori ta guzti be,arako lenengo a bai eta bigaŕen au ba idatzi bear eidoguz;baña nik dñot eta zuzen nagoala dirudit:itz bakaŕa ta ikur bardiñagaz darabilgun itzac zer dalata idatzi bear.doguz ,batean batera ta bestean bestera?Kirol-zala ete-gara?
Erantzumena.Alemanen izkereak eta gure onek alkaŕen antz andirik ez itzetan ez yoskeran izan ezaŕen(1)kopurugai(numeral)batzuk alkaŕen antzera eratu daroez.Erakusmentzat amaŕetik ogeira bitartekoak aitatu daiguzan.Zehn da Alemaneraz gure amar.Elf ta zwölf"amaika ta amabi"eztira gureon antzekoak.
(1)Itz bikoitzetan antz andia dabe.

Gure amairu arek dreizehn(itzez itz iru amar);amalau,vierzehn;amabost,fünfzehn;amasei,sexzehn;amazazpi,siebzehn;amazortzi,achtzehn ta emeretzi,neunzehn. Amar itz onezaz egin daigun gure Euzkitzak bai aotan artuta dinoana:itzbakara ta zentzun bakarez darabilgun itzaetzer dala-ta idatzi bear dogu batean batera ta bestean bestera?Zegaitik amar bakari darabilgunean r ta guzti,Alemanak euren zehn legez,beti osorik:amareka,amarbi amariru,amarlau,amarbost,amarsei amarzazpi,amarzortzi ta amarbederatzi?Kirolzale(edo Gernikako eibartarak esango leukên olgetalari)etegara amaika,amabi ta emeretzi ezpaneratueran? Ez,ezkara kirolzale,erizale baino.Eriak Alemanen zehn amar dogula diraussku ta aren dreizehn amairu,ez amariru;ta guk amairu artu bear.Eriak erderazko sí viene,badator;si viene,bádator;ez baidator;eta guk erizale ta euskalzale ta euskaltzain garealako,gure auretiko gizaldi guztietan legez badakar ezpanetan eta badakar idaztortzetan erabili bear.Beste erakusmen bat Erderazko "veinte"euskeraz ogei,ogoi,hogoi esan daroagu.Uren kopurugai tolosoagak (numerales sencillos)lagun dabezanean erderaz"veintiuno,veintidos"erabili oi dabe,ez osorik"veinte y dos,veinte y tres".Guk bizkaieraz nonnai ta giputzeraz uri batzuetan(Azpeitin,esaterako)ogei ori i uldu oi dautsagu,erdaldunak euren"veinte"ri e kentzen dautsenetan:ogeta bat,veintiuno veintiuno;ogeta bi,veintidos...eta abar.Kirolzale etedira Madridko izkeltzainak veinte ori itz bakara ta zentzun bakarez beti erabiliaren,beti veinte erabilte(veinte y uno)agintzen eztabenean?.Ez,eztira kirolzale;munduko izkeltzaindi guztien antzera erizale dira.Izan gaitezan geu bere.Izkeltzaindiai etxake seinzarorik(aurzarorik)ezagutzen.Valobariak izanaren,lenengo gizona bezelantxe,garako (adultos)dira.Erakutsi daigun geure lan eta erabagietan ezkareala kirolzale garako ta erikoi ta eri-yaraitzaile garesla;eta gure eriak beretzat artuta daukazalako,esan ta erakutsi daigun amar ta bi eztireala amarbi,amabi baino; eta bizkaieraz diardugunean,Euzkitzak bere Andre Maria'ren loretako lîean legez guk bere esan daigun ogetabakaren egunerako irakurkizunak,ogetabigaren, ...eta abar.Batean ogei oso-osorik,bestean ogeta bat i kenduta;eta bardin, eriak dinoalako,batean bai oso-osorik,bestean badakit i ulduta.

I4.-Bardizabal.Uruzuno,Altube ta neuronen esakizunak darakuskuz gero Euzkitz-

ak.¡Orain esatera nuana bai dala polita! ¡Orixe bai dala gauza edéra!-Bementre bai egin dogula-¿Baiotedaki?.Esakizun onetatik iru,lenengo irurak eriarenak dira;askena nonbait bai,alderik gelenetan & ez.Esta badakizue,gizonak, eriarena zein eztan?-Azkueren"baiotedaki";eriak baotedaki esan oi dau agitz, beintzat agirtko.

15.-Guzkitzak"¿Negaitik esan bear ete-dogu batzuetan onelan eta urengoan bestera:ba da polita,ba da edéra,ba daki.orainxe badakust.ikurpen bardiña dauan itza era bitara idazten dogularik?Nik:zegaitik!eriak dinoalako.

16.-Bai ren ordez(dino gure lagunak gero)ba idatzi aren,zalantzarik iñoz be ez ei-dago idaztietan:ostera ba ren ordez bai idatzi ezkero,euskalkien arteko nastea ei-dator.Nire eretxiz bai ren ordez ba idatziezkero,zalantzadun idazkerak legoke;z eta ba'ren ordez bai idatziaren;euskalkien arteko nasterik ez letorke:baña ba'letor be,naste ori kentzea sartu dauan euskalkiari dagokio ta ez besteai".Erantzumena:Bizkaieraz ez,ezta gipuzkoeraz bere,alderik gelenetan beintzat;beste euskalki guztietan aurizki polit bat dauke"prefijo modal" erderazko pues-i dagokiona.Bait- da aurizki ori,ez bai-,Bonapartek uste ebanez.Bere azkenki t osorik esaten da"vocal"baten aurean:baitoa"pues vas" baitintzen"pues eras".¿Consonante" bat yo bear daben guztian uldu egiten da ta izki ori z bada,tz itzultzen dau;bodegarenak badira,petakaren.Edekiren baitzaye ezkondua(Lizarraga,Luc.V-36 35);nola nahi baituzue egin dezazuen (Leizarraga,Luc.VI-31)Guziz gorak gaitzirizkotan baitaduzka bekhatoreak (Duvoisin,Eccles.XII-3);nolako baitara hitez(Leizarraga,II Cor,X-11). Guzkitzaren itzetatik esan daike guk,Bizkaieraz itz egiten dogunok,gai onetan zentzun-nasteren(confusion de acepciones) arenkuraz eztogula bizi bear. Geure artean bere orelako nastea erakori daiteke,bai ori aditz iribiatuaz osorik erabiliezkero.Bizkaieraz bait-(len esan dodana)ezta erabilten;eta ostera beste euskalkietan entzuten eztan"modal"eder bat,liburuetan gitxi irakuriaren(I)eriari alde askotan entzuten dako.Nire iztegian auxe irakurten dogu:Bai-,como prefijo de conjugación indica en segundo lugar el supositivo comparado,y en tal caso al verbo conjugado se le agrega el sufijo complementario -n:Bailetorén,como si el viniera;bailitzan,como si el fuera.

(I)Euretxoetan or-emenka ediro daike.

Arasateko(Mondragoiko)eskribau orain berẽun urte izan zan Pedro Ignacio Barrutiak gabon gaberako ikuskizun bat idatzi eban,"acto para la noche buena".Bere eskutiko itzez agertu eban Euskalzaleki898-garẽn urtean lan irakurgarri au.Ona emen bere itz batzuk:Iru deabruk eruki baga

lasta-sakuba baininzan ala

kendu jeustez aiak,

barberu baga osatu jataz neure azur ausiak(I)

Baininzan"como si fuera"da emen;Euzkitzaren asmoa aintzat artuezkero"ya era yo".Guri bere badagokigu naste ori kentzea.

17.-"Euzkitzak"Baldintza adierazten dauan,ba ta bayetza dikurana,eriak ez ditu bardin oguzten:Badakar"si lo trae"ta badakar(bakar)"sí lo trae", eriak oguzkeran berezten ditu;baña idatzietanazelan bereziko ete-doguz? ¿Ikurẽn bat edo ipiñita?"Bai noski".Erantzumena.Egia da:eriak eztauz bardin oguzten badakar"si lo trae"ta badakar"sí lo trae".Itz batzuk tonu bikoa naiz dan adierazoteko,irakurtatz(signo diacrítico)onetatik bata zein bestea artu daikegu:tonu bako kar orẽn azpitxoan maratxo bat ezarita;edo bestela Euzkitzak darkuskunez,baren gaintxoan agizko ikurra(acento ortográfico)ipiniaz.Lenengo irakurtatza zeatzagotzat daukat,nekatsua litzakigu,ostera,bera erabiltea.Blaztegietan,euskerazko idazkiak argitaratzeko,a,e,i,o,u bear leukeez.Bigarena artu badaigu,gure idazkerea azaldueran onelango zerbait esan bear izango dogu.Azentu orsk erderaz daukan egikizuna ta gure artekoa bana dira,diferenteak dira.Erderazko azentudun izkaia beste guztiak baino gorago oguzten da,euskeraz ez.Gure bádarabil"si él lo mueve"eztogu,erderazko viér(teseños bezelan, ba darabil oguzten:lenengo iru izkaiak tonu bardinean azkena berago,tonu bagarik:badara .Erderazko"en se gui (da,inme dia (ta men (ta ta a vuel (ta de co rre (o,guk onelantxo esan edo beintzat entzun daroaguz:entzegi (da yoango gareala,imediatamen (ta etorteko,a buelta de kore (o bialduko dauskuezala.

18.-Euzkitzak.Lengo erizkizunaren ostean,bádakar"si lo trae"ta badakar"sí lo trae"aitatuta gero dino"baña idatzietanazelan bereziko ete-doguz?Ikurẽn bat edo ipiñita?Bai noski;baña ori baño bai idatzi obe da.Bairen ordez ba

(I)Euskalzale: I.Urteko 413-garen orialdean.

idatziezkero,zelan irakuŕi be ezin jakin geinke,esakunaren amaira elduarte beintzat".Erantzumena.Ikuŕ oŕen bidez(bádakar edo badakar"si lo trae")zelan irakuŕi eŕaz yakin leike.

I9.-Beste erizkizun polit dakar geroago Eguzkitzak."Baldintzadun esakunai baren auŕetik baldin ipiñi..ta kitu:ori egin ezkero,zalantza biderik iñoz be ez legoke.Baña,gogoak emon dauskula-ta ori egitea¿baŕikeria ez ete-da ba? (Irakuŕi beitez Eguzkitzaren uŕengo amasei leŕo"Bizkayan euskaldun...asita Arrese:Zorigach biarte)Ederto ta biribil esana Zeugaz nago lagun.

2o.Eguzkitzak."Bayetza adierazteko bai erabiltea nastebidea eida...ta abar. Leŕo onetan ta uŕengo zazpitan dirauskuna len daukagu irakuŕita,bere txostenaren irugaŕen oŕialdeko bigaŕen leŕotik zazpigaŕenera bitartean.Lan onen I6-gaŕen esaldian edito daike erantzumena.

2I.-Gure lagunak:"Bai-ren ba erabilten laburditaŕak nagusi dira:Ni ba aspaldi¿eta zu?-Bi oren huntan ba-Ni ere ba-Ba ni ere.Eŕiak an eta emen berenak egiten ditu:berak nai dauana egiten itxi badayogu,urte batzuk baŕu aldakuntza ta laburkuntza baŕiak,eukiko doguz:bakar(ba-dakar),baki(ba-daki) luzeegiak,dirala-ta, kar,ki be oŕetarako naiko dirala irakatsiko dausku. Laburditaŕak gaur bairen ordez ba darabile,dirudianez:biar...ez dakit, baña oraingo agian laburagoren baten bila edo dabiltz".Erantzumena.¿Lapurdin baino ez?Gernikan bayetza indartsu ta biribil adierazoteko,bo esan daroe.Boo Lapurdin bere esan daroe,baina ukatzeko nire ustez,Lekeition ¡ba! esan daroen zentzunean.Gure Herria-ren azken geian 2I8-gaŕen oŕialdean "Egun bertze desafio bat nelarazia dute Sempertarrek Baionara.Zer uste duzue?-Pleka?-Ez-kontrebandan?-Fa!-Xantuz?-¡Bo!(Adema zara,Goia ta Mendizabal) Zeberion ta beste basauritxoren batzuetan bai-ren ordez F fff entzunda nago ta ezetz esateko t(gorantz).Gure lagunak bere itzetatik atera gura dauan ondoreaz enago.

"Guk bai osorik,dino berak;aek euren bait osorik eta aditzari iratsi barik idaztea,ori litzake gauzarik zuzenena nire ustez.Onelan,iñori ezer kendu barik,bakotxari berea emoten yako eta au zerbait baño geyago da,zuzenabaita (bai da)Erantzumena.Osozale danak amarbi,amaŕiru,amarlau,.. amarbederatzi (bizkaieraz bere)ogeita bi,niago,guagoz,niengoan,guengozan,zuengozan eta beste zireun osoki artu daizala betiko,bere ezpan-iz idazkortzetan.Gu ezkara osozala,erizale gara gu,Eŕiarenak gara,eŕiarena da gure izkerea.Eŕiak zerbait era bitara darakuskunean,ikusi daigun zein dan bere yokerarik(tendencia) andiena.Orixe da gure bidea.Bai ta ba-ren erizkizun onetan ikusi dozue, gizonak,zein dan eŕiaren naia,gure auŕetiko idazle guztiak erakutsi dauskuena.

R.M.

1921-04-28

Euskera idatziaren batasuna.

Euskaltzale batzuk,batasun orregaz,beste batzuk be,euskera bizkortu ta indartuko litzakela uste dabe:beste batzuk,batasun ori euskararentzat osoro [illegible] sun oren aurka dagoz.

[illegible] kuaria izango litzakela [illegible] barik be egin leikela [illegible] a bizkortu,idartu ta sen- [illegible] Euskaltzale-batzuna'koak [illegible] ar ori ta daukaguzan beste [illegible] izkortu ta osasun onean [illegible] ltik euskeraren bizitz [illegible] batera itxi,geure indar [illegible] doguzala diñot.

[illegible] lana dala edonok dakus; [illegible] barik,biar baño gaur [illegible] izkuntza indartsu bi [illegible] iak artu dauskuez,alde [illegible] e.Orrelan gagozala,geuk [illegible] uskeraren alde batu [illegible] daunak,beglak zabalik [illegible] din:gaur erdera edonon- [illegible] endi galduetarano sartzen [illegible] astutzen gaituen erdel- [illegible] skalgiz banatuta gagoz: [illegible] z edo bein alkartzekotan [illegible] leiken euskera lana dan [illegible] aka aurera jotea,asmorik [illegible] anatuta gagozan euskaldunok euskera batlina ba'geuko,alkar obeto ulertuko geunke:euskerazko idazki bakotxa askoz geyagok irakurriko leuke ta euskerazko idazki geyago argitaratzeko be,irakurle geyagogaz.Orain baño erreti obean gengokez.

Euskera idatziaren batasuna.

Euskaltzale batzuk, batasun oŕegaz, beste batzuk be, euskera bizkoŕtu ta indaŕtuko litzakela uste dabe: beste batzuk, batasun ori euskararentzat osoro kaltegaŕi izango litzakela-ta, gogo ta biotz batasun oŕen aurka dagoz.

Euskaltzale-Batzuna'koak euskeraren mozketa izugaŕia izango litzakela diñoe. Euskeraren batasuna, mozketa andi nai txiki barik be egin leikela dirudit: baña batasun ori, beste ezer barik, euskera bizkoŕtu, idaŕtu ta sendotzeko, naiko izango litzakela nik ez dot uste. Euskaltzale-Batzuna'koak aberŕtzaletasunaren indaŕa aitatzen dabe. Nik, indaŕ ori ta daukaguzan beste indaŕ guztiak batu ta alkaŕtu aŕen be, euskera bizkortu ta osasun onean ipinteko, loŕik asko izango dogula deritxot: augaitik euskeraren bizitz oso ta osasun mardoa nai ba-dogu, umekeriak alde batera itxi, geure indaŕ guztiak alkaŕtu ta elburu oŕetara zuzendu beaŕ doguzala diñot.

Euskeraren batasuna egitea urte askotarako lana dala edonok dakus; baña urte askotarako diran lanak, úrengorako itxi barik, biar bano gaur asi obe da. Garean euskaldun gitxi-gitxiok, beste izkuntza indaŕtsu bi darabilezan eŕi anitz inguratuta gagoz; eŕtz guztiak artu dauskuez, alde guztietatik euskerari saka ta bultz egiten dautse. Oŕelan gagozala, geuk euskaldunok ondo alkaŕtu barik, geure indaŕ oro euskeraren alde batu barik, luzaro eutsi ta iraunazoko dautsagula uste daunak, begiak zabalik asmez dagi. Anbiola ta gaurko aldi au ez dira bardin: gaur erdera edonondik, edonorekin, edonoz eta edonoraño, basetxe ta mendi galuŕetaraño sartzen yaku. Euskaldunak erieldunen ondoan; lau aldetatik estutzen gaituen erieldunen aurez-aur, gitxi-gitxi gara: geure artean euskalgiz banatuta gagoz: onelan banatuta beti ezin jaraitu geinke; baña noz edo bein alkaŕtzekotan eta batasuna urte askoren buruan baño egin ezin leiken asserok lana dan ezkero, len-bai-len bide ori artzea ta piska-piskaka aurera jotea, asmorik zur eta egokiena dala dirudi. Iru-lau euskelgiz banatuta gagozan euskaldunok euskera bardiña ba'geuko, alkaŕ obeto ulertuko geinke: euskerazko idazki bakotxa askoz geyagok irakuŕiko leuke ta euskerazko idazki geyago argitaratzeko be, irakuŕle geyagogaz, orain baño ereti obean gengokez.

Euskeraren alde ,or-emen daukaguzan indar guztiak batu ta alkartu bear doguz:ori ta guzti be euskerari indar emoteko,lanik asko izango dogu,baña indar guztiak alkartuta dagozala esan al-izateko,euskaltzale orok euskeraren alde * lan-egitea ez da naiko.Euskaltzale-aldra bakotxa,bere aldetik eta nai danen alderantz indarka ba'lebil,emendik urte batzuetara,gaur gagozan baño be banatuago egotea,erez jazo daiteke.Bide batetik ez dabiltzanak,gitxitan alkar aurkitzen dabe.

Elburu batera joten ez daben indarak,alkartuta dagozala zoroa ez danek ezin esan lei:baña elburu ori zein dan jakin barik,ara indar guztiak zuzendu leikezan amen-umerik ez da jayo:augaitik euskera-batasunerako bidea artu baño len;gai onetzaz ezetan asi baño len,geure elburu ori zein dan, nora joan nai dogun ebatzi bear dogu:gaurko euskalgi guztien naste izango dan euskalgi baria asmauko ete-dogun ala daukaguzan euskalgi oneitatik bat-edo-bat artuko dogun eta au egitekotan,euskalgi ori zein izango dan erabagi bear dogu.

Len daukaguzan euskalgiak be laregi dirala-ta,baririk inok ez dau nai. Zein autetsiko ete-dogu ba? Onetarako egokiena gipuzkoako euskalgia litzakela geyenak diñoe.Onen alde ziorik asko dagozala uste dot.Euskalgi au darabilen euskaldunak,beste enparauen erdian dagoz:Bidasoz emendik darabilgun euskalgi guztien artean,erdereak azkenen ito daikena,orixe dala dirudi.Beste euskaldun guztioi bide-erdira urteteko dei-egiten dausku: beste enparauekin kidetasun eta antzik geyen dauko;euskaldunai beste edozein euskalgi baño erezago sartzen yake.Euskalgi guztietako euskaldunak batzandu diran tokietan,ori ikusi da:gipuzko-euskalgi ori berez nagosi egin da ta gipuzkoarakin luzarotxu egon diran beste euskaldunak,euren erietara etori-ta gero be,euren euskalgia baño gipuzkoarena geyago erabili oi dabe.Euskeraren batasun ori Euskal-eriarentzat ez izatekotan, alpereko lana da:baña gaur egunean gipuzkoar euskalgi ori beste edozein baño euskaldun geyagok darabile-ta,beste edozein baño erezago zabalduko litzake:augaitik euskera-batasunaren jasointzat gipuzkoar-euskalgia artu nai dauna oren aurka dagona baño zuzenago dabil.

Euskeraren batasuna urte askotarako lana da:gaur noz-edo-zein ara eltzeko asmoz,bidea artu baño besterik ezin egin geinke.Gure elburu euskera garbi,txukun,ornidu ta aberatsa da:baña gauzak dagozan lez artuta,amesetan asi barik,elburu oretara joteko biderik egokienaz,zein izango eta-da?

Arau batzuk irakuriko dautsuedaz:egokiak diran ala ez beuek esango dozue:

I° araua.Euskalgi bakotxaren batasuna egiteko asmoa,ona da:oretarako egiten dan lana,euskerarentzat onuratsua izango da,lan oregaz euskalgiak alkargandik urindu ezik.

2ª Euskera osoaren batasunari jaramon barik,euskalgi bakotxarena egiten ba-giñardu,euskalgien batasun ori lortuko litzaken egunean,oneik alkargandik gaur baizen urin legokez eta euskalgi-zaleak nai daben lez egin ezkero,gaur baño be uriñago:augaitik euskalgi bakotxaren batasunera joteko asmoz,lanean diardugun bitartean,euskera osoarena geure gogo ta begien aurean beti euki bear dogu.

3° Euskera osoaren batasun ori nun eta zelan egingo dogun ebatzi ezik, gogo ta begien aurean ezin euki daikegu ta zuzen ala oker gabiltzan ezin jakin geinke:augaitik batasun ori nun eta zelan egin nai dogun,ezetan asi baño lenago erabagi bear da.

4° Euskalgi barirk asmaten ibili barik,daukaguzanen bat-edo batera jo bear dogu:euskeraren batasunerako biderik zur eta egokiena aure dala orok autortzen dabe.

5° Gipuzkoar euskalgia batasun oren ero ta jasointzat artu geinke:Gipuzkoan ori bakarik,beste erietan bertokoa ta ori erabili beitez,besterik ez.

6° Euskera batua ta euskalgiak noz eta zelan erabili jakiteko,zelako euskaldunak daukaguzan gomutau daigun.Euskaldunak aldra bitan banandu daikeguz:euskera irakurten dabenak eta ez dabenak.

7ª Azkenengo onein artean batzuk irakurten ez dakie;beste batzuk euskerari iguin eta goroto dautse;beste batzuk gorotorik ez,baña maltasun apurik bez;azkenez beste batzuk euskera irakurteko oiturarik ez daukelako-edo, nagi dagoz.

8º Euskeraren batasuna egin nai dogula esanaz nai bakotxaren euskalgiz eta euskera mordoloz idatziaz beste barik,oneik euskerazko idaztiak irakurten ipiñiko doguzala uste ba-dogu,okeŕ gagoz.

Bada-ezpada,nagien artekoen batzuk bizkortzen diran ala ez ikusteko, oŕeintzat zerbait euren euskalgiz eta euskera eŕezean idatzi beaŕ dala diruli;baña gauza andirik ez,oŕeiketz onura gitxi itxaron daikegu-ta.

9º Euskera irakurten dabenakin be,aldra bi egin daikeguz:euskaltzalena ta irakuŕle soilena.Lenengo aek euskera irakuŕi ta idatzi,ikasi ta landu egiten dabe:bigaŕen oneik irakuŕi ta oŕelan lendik dakien baño zerbait geyago ikasi,besterik ez.

Io Euskera bizkoŕtu nai ba-dogu,euskera gatxa eraoilten dogula ta,beti mormoxetan diarduen euskaldun epel,alpeŕ eta nagiai jaramon gitxi egin bear dautsegu,oneik lagun doguzala,ezertxu be ez dogu egingo-ta.

II Euskera bizkoŕtu nai ba-dogu,gazte ikastunak,euren ikastaroa oraintsu amaitu daben eta oraindik arlo oŕetan dabiltzan euskaltzale gazteak,beste iñor baño lenago geure lagun egin eta sailean saŕtu beaŕ doguz.

I2 Indaŕ nagosia oneiketz dator:baña oneik euskera txukun,apain eta aberatsa nai dabe;adiñak asmau daikezan gogapen oro,biotzak soŕtu daikezan gurari guztiak,beste edozein erderetan baizen ondo ta egoki adierazteko gai izango dan euskera nai dabe.

I3 Augaltik jasointzat aŕtzen dogun gipuzkoaŕ euskalgi oni,beste euskalgien aberaskiz albait geyen osotu,ornidu ta apaindu beaŕ dala diruli. Onelan beste euskalgien itz oitu ta zar guztiak,batzuetan orain dauken ikuŕpenarekin,beste batzuetan ikuŕpen ori pixka bat aldatuta euskelgi onek beretu bear ditu,ezetarako izan daiteken ezeri be galtzen itxi barik.

I4 Au egin aŕen be,landeŕ asko izango da-ta,edozein erderaz adierazo leiken guztia,euskeraz be adierazo al izateko,beaŕ dituan itz baŕi guztiakin ornidu ta ta aberastu beaŕ da.

I5 Baña askok itz baŕietzaz neuŕia ipiñi beaŕ dala diñoe.Nik be ori uste dot;baña neuŕi ori,irakuŕi dodan lez barik,beste era baten ipiñiko neunke.

I6 Antziñatik euskeran saŕtu yakuzan eta euskal-antz eta usaña aŕtu dabe

itz aŕotzak jaurtiteko asmoz,itz baŕiak asmaten diñardugu.Oraingo aldi au oŕetarako aldi ona ez dala uste dot:ori,beste zeregin andirik ez daukagunerako itxi-ta,geure egun oneitan auzotik datorkiguzan itz aŕotazi bidea saŕatzen ekingo ba'geunskio.euskerak askozaz geyago irabaziko leuke.

17ª Onelan ba,antziñatik sartu yakuzan erdel-itz zaŕai bein-bein geldi itxi ta,geyago ta geyago sartu ez dakiguzan.euskal-itz zaŕak idoro,beaŕ diran baŕiak sortu ta zabaldu beitez.

18ª Itz baŕiak sortu orduko,beaŕezkoak diran ala ez astiro ta ondo begiratu bedi:edozein euskalgitan itz zaŕik ba-dago,oŕen ordezko baŕirik ez da beaŕ: itz zaŕa bere otsa pizkaen bat aldatuta,egokia ba'litz,baŕia baño obe litzake;itzaren ikuŕpena bere otsak aldatzeka eŕez edatu ba-lei ostera,ori egitea zuŕago izango dala dirudi.

19ª Itz zaŕik ezpa-dago,euskal-eŕo ta zuztrayakin baŕiak sortu beitez;aldala gipuzkoaŕ itz zaŕen antza emon bekioe.

20ª Beaŕ doguzan itz baŕi oro,euskal-zuztrayakin sortuten ibili barik,beste erderak aŕtzen dabezan ituŕitik,berein artu daikeguzala deritzat;baña euskal-abotseta edo izpiakerea aŕerazo ezkero,itz oŕeik euren erea laŕegi aldatu ta antzik geyena galdu beaŕ ba'lebe,oŕein ordezkoak euskal-eŕotik atera obe litzake.

21ª Gauza baterako itz baŕi asko erabilteak,naste ta kalteak baño ez lekaŕke-ta,zeintzuk erabili ta zeintzuk baztertu erabagiko daun Batzordea ipiñi bedi.

22ª Beŕogei urtez onantza,zuzen ala oker ainbat itz baŕi sortu dira;itz baŕi oneitatik asko saŕi erabili dira-ta,euskaldun guztiak ez,baña askok ezagutzen dabez;augaitik txarto eralduta dagozala argiro ikusi ezik,itz baŕi oneik onetsi ta artu bear doguz,euren ordezko baŕiagoak sortuten ibili barik.

23ª Euskalgien arteko alde nagosiak aditzekoak dira:aditzeko alde oneik batasunera ezin ekaŕi geinkez.

24ª Gai onetan auxe bakaŕik egin leikela dirudi:gipuzkoaŕ aditz-jokoak era bat baño geyago daukazanean;beste euskalgietako euskaldunentzat eŕezen

